

# Zientzia.net

## Zientzia eta Teknologiaren ataria

Igor Urresti Osa

Elhuyar

**Elhuyarrek, berri ere, etorkizuneko apustu garbia egin du eta egunez egun nagusitzen ari den Interneten zientzia eta teknologiaren ataria sortu berri du. Aurkezpena joan den maiatzaren 25ean izan zen Miramongo zientzia-museoan eta bertan azaldu ziren *Zientzia.net*-ek eskaintzen dituen edukiak. Ea zuek ere gustukoak dituzuen.**

SORTU BERRI DEN ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN ATARIAK *ZIENTZIA.NET* DU IZENA. [www.zientzia.net](http://www.zientzia.net) helbidean aurkituko duzu eta euskarak informazio-teknologia berrietan oraindik duen hutsunea betetzen lagunduko du.

*Zientzia.net* edukiz betetako gunea da eta zientziaren inguruko azken berriez gain kontsultarako hainbat informazio historiko biltzen ditu.

### Eguneroko berriak

Egunero-egunero zientziak eta teknologiak munduan eman dituen albiste nagusiak *Zientzia.net*-en aurkituko dituzu.

Alde batetik, Elhuyarke lan-taldeak aukeratutako berriak interesgarrienak euskaraz izango dituzu. Era askotako gaiak eta gaurkotasunez beteak, azken ikerketa eta berrikuntzek ekarri dutena modu ulergarri eta atseginetan landuta aurkituko duzu.

Gainera, informazio eguneratuaren eskaintza aukeratutako erdarazko (ingeles, gaztelania zein frantsesa) web guzuek eskaintzen duten azken informazioetarako estekez osatzen da.

### Dosierrak

Eguneroko albisteei ez ezik, sarri buzan dabilzan gai nagusiei ere erantzuna eman nahi die *Zientzia.net*-ek. Behi eroak edo espazio-estazioen his-

toria modu egituratu eta ulergarrian eskaini du, eguneroko bizitzan zientzia oztogo gerta ez dakigun.

Bi astetik behin, gaurkotasunezko gaiak hobeto ulertzeko dosierrak egingo dira, gai nagusien oinarria, bilakaera eta azken joerak azalduz.

### Aldizkaria

*Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkariaren zenbakiak on line kontsulta daitezke. Dagoeneko 1998tik aurrerakoak eskuragarri dituzu eta urte-bukaerarako 1995etik aurrerakoak egongo dira; hainbat zientzia-alorretako 2.300 artikulua baino gehiago kontsulta ditzakezu jada Internet bidez.



ARTXIBOKOA

Azken bi zenbakietako artikulua laburrak ere kontsultatu ahal izango diren arren, artikulua nagusietako informazioa mugatuta agertuko da bi hilabetez, eta berarek irakurtzeko, paperean argitaratutako aldizkaria izango da bide bakarra.

Aurkezpen-moduei dagokienez, artikulua bakoitza bi era desberdinetan kontsulta daiteke:

- PDF formatuan. Aldizkariak zeukan itxura bera mantenduz eskura dezakezu artikulua. Era honetan, paperean duen itxura berberaz inprimatu eta gorde ahal izango dituzu dokumentuak.
- Interneteko irakurterazagoa den formatu berezian. Papererako formatuak askotan ez dira egokiak pantaila bidez kontsultatzeko. Garrantzi handia eman diogu Interneteko erabiltzaileak informazioa era garbi, praktikoa eta erakargarrian erabiltzeko aukera izateari. Artikuluentzako diseinu propioa definitu dugu, testu irakurteraz eta irudiz ondo homitua eskainiz.

### Bilatzailea

Zientzia.net-en dagoen informazio guztia erabilgarria izateko, informazio hori bilatzeko sistema ona izatea ezinbestekoa da eta horregatik bilatzaile-sistema ahaltsua jarri dugu martxan.

Bilatzaileak bila dabilen hitzaren lema bereko hitzak (hau da, hitz bera deklinazioa kontuan hartu gabe) zein doku-



Bilatzaile-sistema ahaltsuak eta Zientzia Hiztegiak Zientzia.net-en erabilgarritasuna bermatzen dute.

mentutan aurki daitezkeen adierazten du. Nahikoa du, beraz, 'genoma' idaztea, 'genomek' 'genomaren' edo beste edozein aldaera duen artikulua aurkitzeko.

Gainera, bilaketa aurreratuaren aukera ere eskaintzen da. Bilaketa aurreratuaren bilaketa-data, egile edo/eta gaiaren arabera muga daiteke.

*“hainbat zientzia-  
-alorretako 2.300  
artikulu baino  
gehiago kontsulta  
ditzakezu jada”*



du. Horregatik, bost urteko muga jarri diogu proiektuari, baina proiektua garatzen doan neurrian ere beti izango da kontsultagarri Internet bidez. Jadanik 15.000 termino kontsulta daitezke euskarazko oinarritzko definizioekin.

Horrez guztiaz gainera, artikulua gaita sailkatuta daude: Biziaren zientziak, Espazioa, Osasuna, Lurraren zientziak, Informatika, Teknologia, Ingurugiroa, eta Fisika, Kimika eta Matematika. Gai zehatz bakoitzaren inguruko jakin-mina asetzeko aukera eta Aurki bilatzaileak erabiltzen duen ODP proiektuan oinarritutako hainbat esteka interesgarri ere bertan izango dituzu.

### Hiztegia

Elhuyarren beste asmo handiko proiektu bat ere martxan dugu: *Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa*. Iru-diz homitutako 25.000 kontzeptuko hiztegi entziklopedikoa egin nahi dugu, euskarazko definizio eta artikuluez gain erdal ordainak (ingelesa, gaztelania, frantsesa) ere izango dituen.

*Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa*ren esparrua zabala eta diziplina artekoa izaki, harekin lotutako hainbat jakintza-alorretako kontzeptuak lan batean biltzeko lan handia eskatzen

Aurrekoaz gain, web guneari bizia emango dioten hainbat atal aurkituko dituzu: eguneko argazkia dagokion azalpenarekin, Euskal Herrian emango diren ekitaldi, azoka, hitzaldi, etab.en agenda, eguneko esaldi eta efemeri-dea, zientziaren eta teknologiaren inguruko galderak egiteko aukera, harpidetza-sistema —asteak eman duena posta elektronikoko bidez etxean jasotzeko aukera— jada *Zientzia.net*-ek martxan dituen aukerak dira.

Laster liburutegi birtuala ere martxan egongo da, hots, zientzia eta teknologiaren inguruko euskarazko liburuak doan jaisteko aukera.

Interneteko beste guneek bezala *Zientzia.net*-ek ere bizia izan nahi du, eta horretarako, etengabe aldaketak, gehikuntzak eta hobekuntzak sartuko dira. Badakizue, bada; murgil zaitzete *Zientzia.net*-en eta bidali zuen iritziak. Pozarren jasoko ditugu.

